

Euskal AEko industria-jarduerak % 13,3 egin du gora 2021eko ekainean


Industria Produkzioaren Indizearen 2021eko lehen sei hiletako aldakuntza metatua % 13,9koa da

Euskal AEko industria-produkzioa 2021eko ekainean 2020ko hil berean izan zena baino % 13,3 handiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. Laugarren hilez izan dira industria-produkzioan aurrerakuntza nabarmenak; % 10etik gorako hazkuntzak izan dira. 2021eko lehen sei hilen balantzearen itxieran, industria-jardueraren igoera % 13,9koa izan da.

Ekaina aurreko hilarekin alderatuta, 2021eko maiatzarekin, berriz, Euskal AEko industria-produkzioak % 1,6 egin du behera, urtarotako ondorioak zuzendu ondoren.

Aldakuntzak urte arteko terminoetan nolakoak izan diren ulertzeko, 2020ko martxoaren 14an COVID19aren pandemiari aurre egiteko alarma-egoera dekretatu ondoko hiletan izan den industria-jardueraren gaineko inpaktua izan behar da kontuan.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko ekaineko indizearen bilakaerak, 2020ko ekainaren aldean, zantzu positiboak izan ditu, industria-sektore handi guztietan. Igoera handiena *Tarteko ondasunek* izan dute, % 19,5 egin baitute gora; haien artean daude metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Kontsumo-ondasunek, oro har, % 17,0ko urte arteko gorakada izan dute, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 39,9ko gorakadaren eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 12,0ko gorakadaren ondorioz. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* epigrafean altzarien eta etxeko aparatuen fabrikazioaren jarduerak daude. Honako hauek dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruan sartzen diren jarduerak: elikagaien fabrikazioa, prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa, eta arropen jantzigintza.

Bestalde, *Ekipo-ondasunek* % 6,1eko gorakada izan dute. Haien artean honako hauek daude: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza.

Azkenik, *Energiak*, non energia elektrikoaren produkzioa eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen baitira, % 5,9 egin du gora, urte arteko terminoetan, 2021eko ekainean.

Hil arteko aldakuntzaren zantzuak –2021eko ekaina 2021eko maiatzaren aldean– desberdinak dira industria-sektore handietan: *Energiak* % 3,5 egin du gora, eta *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 1,8 handitu dute produkzioa, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 3,8ko igoeraren ondorioz; izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorretan*, % 4,8ko beherakada izan da. *Ekipo-ondasunek*, berriz, % 4,2 egin dute behera, eta *Tarteko ondasunek*, % 1,1.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko ekaina

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Eka2021 / Eka2020	A(Eka2021) / A(Eka2020)(*)	Eka2021 / Mai2021	Mai2021 / Api2021
Indize orokorra				
Euskal AE	13,3	13,9	-1,6	-1,6
Araba/Álava	0,2	13,0	-6,5	-0,9
Bizkaia	16,6	11,0	-0,1	-3,6
Gipuzkoa	18,5	17,3	-0,1	-0,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	17,0	12,5	1,8	-4,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	39,9	39,9	-4,8	4,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	12,0	6,8	3,8	-6,7
Ekipo-ondasunak	6,1	15,2	-4,2	-3,9
Bitarteko ondasunak	19,5	18,4	-1,1	-2,5
Energia	5,9	-5,2	3,5	-10,5

(*) 2021ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskadiko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2021eko ekainean urte arteko suspertze handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Metalurgia eta produktu metalikoak* (produkzioa % 26,7 hazi da); *Kautxua eta plastikoa* (% 20,9 hazi da), eta *Makinak eta ekipoa* (% 16,8 hazi da). Urte arteko bilakaeran zeinu negatiboa izan duen sektore bakarra, berriz, *Garraio-materialarena* izan da, % 10,6 egin baitu behera.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	26,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	5,9
09 - Kautxua eta plastikoak	20,9
13 - Makineria eta tresneria	16,8
14 - Garraio-materiala	-10,6
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	13,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	2,7
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	9,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ekainean, industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Hala, Gipuzkoan % 18,5eko gorakada egon da; Bizkaian industria-produkzioa 2021eko ekainean 2020ko ekainean baino % 16,6 handiagoa izan da, eta, azkenik, Araban, urte arteko aldakuntza % 0,2koa izan da.

2021eko lehen bost hiletako metatuan, Gipuzkoa izan da gehien hazi dena (% 17,3), ondoren Araba (% 13,0) eta, azkenik, Bizkaia (% 11,0).

INFORMAZIO-OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, ekaineko indizea laginaren % **92,61**eko estaldurarekin kalkulatu da –haren informazioa uztailean jaso da–.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62